

FUNTZESKO BALIABIDEAK

ZER BEHAR DA AURRERA ERAMATEKO PROIEKTUA?

-Enpresa baten funtsezko baliabideak honela banatzen dira:

- Baliabide fisikoak
- Baliabide intelektualak
- Giza baliabideak
- Finantza-baliabideak

Proiektuak arrakasta izan dezan funtsezkoak diren zuen baliabide ukigarri eta ukiezinak (esperientzia, kontaktuak, abileziak...) zein diren xehatzea.**FUNTZESKO BALIABIDEAK**

Sozietate limitatua edo Erantzunkizun mugatuko sozietatea. (SL)

- **Kapitalista da:** Kapitalak bazkideen ezaugarri pertsonalak baino garrantzi handiagoa du. Bazkide gutxi dituzten eta kapital kopuru handiak behar ez dituzten enpresentzako aproposa da eraketa mota hau.
- Bazkide kopuru minimoa 1 edo gehiago.
- **Erantzukizuna:** mugatua da, bere ekarpenen arabera.
- **Kapital Soziala** partaidetzetan banaturik dago. Partizipazio hauek erantzukizun mugatuko sozietate bateko kapital sozialaren zati txiki, berdin eta zatiezinak dira. Partizipazioak ezin dira titulu negoziagarriekin nahastu behar.
- **Partizipazioen Transmisioa** murriztua da eta ezin dute akzio izena hartu. Administratzaileak informatu behar dira:
 - Aldaketa egiteko intentzioan.
 - Partizipazio kopuruan.
 - Eroslearen nortasunean.
 - Adostutako prezioan.
 - Beste bazkideek partizipazio horiek nahiko balituzte,

lehentasuna izango lukete. Transmisioa dokumentu publikoan egin behar da. o Gutxieneko kapitala: 3.005,06 €. Kopuru honek, sozietatea eratzeko momentuan, guztiz harpidetuta eta ordainduta egon behar du.

- **Enpresaren izena:** Bazkideek aukeratzen dutena. Atzetik, “Erantzukizun Mugatuko Sozietate” edo “Sozietate Mugatua” edo “SRL” edo “SL” laburpenak joan behar du. o Fiskalitatea: Sozietateen gaineko Zerga ordaindu behar du. o Eraketa: Eskritura publikoaren bidez, Merkataritza Erregistroan. Gutxienez hurrengo datuak egon behar dira:

→ **Sozietatearen izena**

- Gizarte objektua (zein sozietate osatzen dute).
- Egoitza soziala.
- Kapital soziala, partizipazio kopurua, bere balio nominala, etab.
- Administrazioa antolatzeko modua.
- Bazkideen iritziz ezarri behar diren legezko paktuak edo baldintza bereziak.

→ Sozietatearen Organoak. Zuzendaritza organoa horrela dago osatua:

- **Batzar Nagusia.** Honek lan ditzakeen gaiak hurrengoak dira:

- Lan kudeaketaren zentsura.
- Urteko kontuen eta ekitaldiaren emaitzaren aplikazioaren onarpena.
- Administrazioaileen izendapena eta kargu gabetzea.
- Estatutuen aldatzea.

- ❑ Bazkide guztiak, bileran parte hartu ez dutenak barne, Batzar Orokorrak onartutakoaren menpe gelditzen dira.



- **Administratzaileak**

- ❑ Ezingo dute sozietatearentzat lehia izan daitekeen edozertan lan egin.
- ❑ Eskritura sozialak ezartzen duen epean lan egingo du eta Batzar Nagusiak edozein unetan kargugabetu ahalko du.
- ❑ Urteko kontuak aurrera eraman ahal izateko, sozietate anonimoen arauak jarraitu beharko ditu.
- ❑ Ez du zertan bazkide izan.